









# Ines, "hain biktima ez den biktima bat"



Nerea Arrien. / F.I.

## Nerea Arrienen lehen nobelan sare sozialek erabateko presentzia eta garrantzia dute

FELIX IBARGUTXI
Miércoles, 29 noviembre 2017, 20:28

Nerea Arrien (Lekeitio, 1976) ez da aurpegi berria euskal letren

Lo + leído

El Diario Vasco Libros Top 50

1 ¿Qué le ha pasado a Jim Carrey?

2 Fin al duelo televisivo más épico en busca del rosco

3 Estreno del documental sobre 'el asesino de la catana': «Es difícil verlo sin prejuicios»

4 El alcalde de Donostia lamenta que «se haya dejado pasar un tren» con el Bellas Artes

5 Verdini y el Coro Landarbaso conmemoran el 80 aniversario del bombardeo de Gernika

baratzean, baina oraintxe atera du helduentzako lehenbiziko nobela, **'Hirutter'** delakoa. Izenburuak adierazten duen bezala, sare sozialek berebiziko garrantzia dute istorioan, eta baita liburuaren egituraketan ere. Istorioaren ardatza intimitatea da, sare sozialek arriskuan jarri duten altxor hori.



Arrienek badu lehendik liburu bat publikatua: **'Pentsatzeko txokoa'** (haurrentzakoa, 2015ean Lizardi saria irabazitakoa). Eta aurten Gabriel Aresti sariko akzesita irabazi du **'Matrioska'** narrazioagatik.

Triangelu bat dago istorioan: bi gizon gazte, Martin eta Gari, eta emakume bat, Ines. Kideok sare sozialen bidez elkarri bidaltzen dizkioten mezuak dira nobelaren funtsa.

Hasiera aldera, protagonisten profilak agertzen dira. Martin Lasa kimikari eta poeta da, eta House doktorea bihotzeko kontuetan. Gari Mateo, berriz, mekanikoa eta futbolaria denbora librean; eta kaleko unibertsitatean ikasia. Inesen profilik, aldiz, ez da ageri. Baina hona hemen Arrienek aurkezpenean esandakoa: "Biktima bat da, baina hain biktima ez den biktima bat".

Bideo sexual bat partekatzen dute lagunok sare sozialetan. Badago hiruko 'manada' bat, badago 'manada' birtuala bat ere, egongo dira epaiketa 'egiazkoa' eta birtuala ere.

"Jokalari naizen aldetik, nobelazale ere banaiz. 'Rasque y gane'-ko txarteltxoekin konparatuko nuke liburu hau: lehenbizi hazka egiten duzu parte batean eta gauza batzuk ikusten dituzu, gero segi hazka eta beste parte bat bistaratzen duzu, nobelaren mamiraino iritsi arte...".

Egilearen ustez, halako intimitate-joko bat dago istorioan zehar. "Protagonistek zerbait aitortzen dute, baina beti ari dira zerbait gordetzen ere". Istorio gogorra atera zaio, "nahita, alde amable denak kendu ditut eta".

Iñaki Aldekoa, Erein etxeko editorearen ustez, "zoriontasun gutxi eta frustrazio asko" dute hiru protagonistok, eta nobelak daukan egitura berritzailea azpimarratu du.

**TEMAS** Libro, Euskera

Recibe nuestras newsletters en tu email **Apúntate**